

Nafarroako Esaera Zaharrak. Bera.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Bera.

- 1715 *Abenduko eguna, argitu orduko illuna.*
- 1716 *Agustin Pierres, ate-zokoan negarrez: arto-puska eskutan, ta ogi-puska naiez.*
- 1717 *Ama Birjiña martxokoan Erromako zubian kuku; San Pedrotan mutu.*
- 1718 *Ama Birjiña martxoko, beiak larrian aseko.*
- 1719 *Andres, trikilun tres: bolsa aundia, ta dirurik ez.*
- 1720 *Antxo txarra beti bildots.*
Ume edo jende bearra, beti premian.
- 1721 *Antzotza erria zuretzat.*
Antzotza = gaiña kendu zaion gazura; erria = errea.
- 1722 *An zagon!*
Noizpait izan bada ere, galdua zagon.
- 1723 *Apirilla, biribilla: urdandegian zerria illa.*
Apiril osoa elurretan badago, zerria gosez edo otzez iltzen.
- 1724 *Arek ere lengo lepotik burua.*
Lengoa bera da orain ere, ez da bat ere aldatu.
- 1725 *Ardi txikia beti bildots.*
Jende eza beti neketan, eta buru gutxikoa berdin.
- 1726 *Aria baño eskua luzeago bear da.*
"Orratza baño aria luzeago bear da".
- 1727 *Arriak ez du begirik.*
Kontu beraz arria botatzean, nai ez den tokian jo ez dezan.
- 1728 *Artajona: arte ona.*
Arte deritzan zuaitzetik sortua.
- 1729 *Artuko (d)ituk iri(a)k eta asto beltxarenak.*
- 1730 *Ator, ator: badi(ag)u aza, illarra, ta pittar mingorra.*

Jatera deitzeko.

- 1731 *Batzuetan ardi ta bertzetan bildots.*
Ezkondu bati dagokion eran ez dabillena.
- 1732 *Ba! ez duk burutik maingu!*
Buru ona du bere gauzetarako.
- 1733 *Bearra, gauza miarra.*
- 1734 *Beti maja nai du(e)na, beti zarratrako.*
- 1735 *Beti eri ta beti gaxo: beti zain-ezurak oso.*
Maiz gertatzen da ori: beti eri ta gaxorik daudenak, luzaro irauten.
- 1736 *Bi itxetako zakurra gosiak il.*
- 1737 *Bururik ez duenak txapel bearrik ez.*
- 1738 *Denan (denen) soruan, belar txarra.*
Denak ebakitzen, bañan ez ongarritzen.
- 1739 *Dirua: mutillik oberena, ta nagusirik txarrena.*
Laguntza aundia, ongi erabiltzen bada; nagusi txarrena, biotzaren jabe egiten bada.
- 1740 *Duenian bon: ez duenian gabe egon.*
- 1741 *Eman ta kendu: apuk (zapoak) amar biatzak kendu.*
- 1742 *Erraiok bearrien gibel(e)ko aldian.*
Suminduko duk, belarri ondora esaten badiok.
- 1743 *Espentsa (esperantza) aiña beldur.*
- 1744 *Etsaiak, egizak eta agertzak.*
Gaizki egiten duenaz esaten omen da.
- 1745 *Etxe txikia beila (bereala) gañez, ta beila utsa.*
- 1746 *Etor(ri)ko dire ezpata gerrian.*
Gogor egitera ote?
- 1747 *Ez du sudurretik aborañoko astirik.*
Entzun duena ezin ixillik iduki.

- 1748 *Gero ariko da aztunpa bezala negarrez.*
Aztunpa mutikoen jostailu ta jostaketa bat zen. Lintsus-adar puska bat artu ta barneko mamia ustu egiten zioten; gero tutu ori urez beteta ur ori elkarri botatzen ta elkar bustitzen ibiltzen ziren jostaketan; ortik esaera au.
- 1749 *Gezurra esan nuen Getarian: ni etxera orduko atarian.*
- 1750 *Gizonak itsasoari: Ezkon adi! mantxotuko aiz bai!*
Ezkonduak ori esan omen zion itsasoari.
- 1751 *Goiz gorri, arrats euri: arrats gorri, goiz egualdi.*
- 1752 *Goiz yekia, goiz gose: berandu yekia, loz ase.*
- 1753 *Gu Ameriketara abiatu ezkerro, itsasoa agortuko yuke.*
Gure bear-orduan iñork ez du deus guri laguntzeko.
- 1754 *Yaio ezkerro, eriotza zor.*
- 1755 *Yakiteak ez du ogirik yaten.*
- 1756 *Yateko gogorik ez duenak, Larun-en maia prest.*
Larun mendia, Beratik urbil.
- 1757 *Ibiltzen den pitxera autsitzen da.*
- 1758 *Yep! etxean mai ederra, ta yatekorik ez.*
- 1759 *Ikusi ta urrutx!*
Deusetarako ez dena.
- 1760 *Il ta ondoan zopa bearrik ez.*
- 1761 *Yokalaririk oberena pillotarik gabe.*
"Axuririk ederrena txintxarri gabe".
- 1762 *Ireak gorde ta bestienak agertu.*
Ire utsak eta besteenak.
- 1763 *Ire errian ez al duk gazterik iltzen?*
-Bai, iltzen dire; baño zarrak, denak.
- 1764 *Itxuran kontrako apo saltaria.*
- 1765 *Igantziarrak yakintsu(a)k. Aranaztarrak arrikalariak, Etxalartarrak moxkorrak. Lesakarrak triposu(a)k. Beratarrak itzontziak.*

Bortzerrietako jendeak nolakoak diren. Alde guzietan izaten dire olatsuko esaera farragarriak.

- 1766 *Izana ta gabia, ezin gordia.*
Asko duena ta deus ez duena, berdin agerian.
- 1767 *Kanpoan uso ta etxian otso.*
Beste lekutan ere ola.
- 1768 *Kanpoko eltzia urrezkoa, ondora alle(ga)tu-ta lurrezkoa.*
- 1769 *Katuak kanpoan, ta arratoiak besta.*
Etxeko nausi-andreak kanpoan, mutil-neskameak besta.
- 1770 *Katua mai azpitik miau!*
- 1771 *Kaulebaitakoa emen da; Lorentza-baitakoa emen ote da?*
Apezaren galdea meza asterakoan: urrutikoak emen dire, urbillekoak emen ote dire?
- 1772 *Kia den tokitik (tokian), sua. Sua den tokitik ateratzen da kia.*
- 1773 *Lastozko ipurdidunak, erretzeko beldur.*
- 1774 *Lasterka abi(a)tu, ta bidian gelditu.*
Bero bero asi zerbait egiten, eta bereala uko egin, azkeneraño iraun gabe.
- 1775 *Listo listo nintzen; denen bearrian nintzen. Tonto tonto nintzen: alere bizitzen nintzen.*
- 1776 *Maiatza neskatx(a) ederra emen zen, baño alferra; ta gosiak eta otzak il zuen lan egiteko beldurrik.*
Alferkeriak oberena ere galarazten.
- 1777 *Mainger onik ez.*
Beso-makur onik ez dela.
- 1778 *Martxo-lore, urre-lore: apiril-lore, parerik gabe: maiatz-lore, bat ere baño obe.*
Beste lekuetan maiatz-lorea da oberena, urre-lore...
- 1779 *Martxo kaldartxo: ez ardi ta ez artantxo.*
- 1780 *Nagia, beti nekatua.*
- 1781 *Neska zarra milindrin: orain iriak (ireak) egin din.*

- 1782 *Ni biño (baiño) aundiagoa, bano: ni biño txikiagoa, nano.*
- 1783 *Nok egin din kafe txar au? Gure amak, irugarren egin-aldi(a)n, kafe obia egiten din.*
- 1784 *Nolako Maria, alako Joanes.*
- 1785 *Nol(a)ko arbol(a)tik, al(a)ko ezpala.*
- 1786 *Ogirik oberena, artoa ezin izana.*
- 1787 *Ongi egin, eta esker txarra pago.*
- 1788 *"Orkonpon"ek etxea yan zu(e)n: "zergertare"k egin.
"Orkonpon" alfer utsa, "zergertaere" beti langille.*
- 1789 *Sagarmartxo-lore zillar-lore: apiril-lore, urre-lore; maiatz-lore, bat ere ez baño obe.
Ikus or gorago eta beste lekuetan ere bai.*
- 1790 *San Andres: goizian azaroan, eta arratsian ez.
San Andrés azaroaren 30'an; biaramonean abendua asten.*
- 1791 *San Jose, kazkabarra ortzian.*
- 1792 *San Juan(e)tan, artuak belia tapatu bear dik.
Belea estaltzeko ainbat azia.*
- 1793 *San Juan(e)tan lau sagar ikusi ezkerro, naikoa duk.*
- 1794 *San Pedro egunian euri egiten zuenian, negar egiten zuen Labai(e)n-go andriak.
Gaztañak galtzeko beldurrez nonbait.*
- 1795 *Su ondoan autsa bueltaka: biramonian elurra.
Negu aldeko aize biurriaren atzetik, maiz elurra.*
- 1796 *Trinka-ta Pierres! Edan zagun, Tomas.*
- 1797 *Txanpon baten miña, ta bi sosen lotura.*
- 1798 *Urik ez du(e)n errotak, ez du soñurik egiten.*
- 1799 *Urrutitik ardia: bertara yoan ta, ez ardi ta ez bildots.*

- 1800** *Zakur zarrak sainka aundi(r)ik ez.*
- 1801** *Zer erran duk? -Gauz(a) onak bein.*
- 1802** *Zigurrain (edo zurrain) sakelak bi zulo.*
Zigurra = zurra, zikoitza, zekena.
- 1803** *Zozuk beliri: ipur beltz.*
Zozoak beleari...